

HERRITARREN PARTE-HARTZERAKO PROGRAMA

HERRITARREN PARTE-HARTZERAKO PROGRAMA

Gueñesko Udalak Hiri Antolamenduko Plan Orokor (HAPO) berria idazteko prozesua hasi du, egungo arau subsidiarioak ordezkatzeko.

Prozesu horretan herritarrek parte hartzea aurreikusten da, eta, horretarako, programa bat egin da herritarrei elaborazio-prozesuan parte hartzeko eskubidea emateko helburuarekin. Hori horrela, jendearentzako irekitako zenbait saio egingo dira, hasierako lanen azalpenak emateko, beharrezko dokumentazioa zabaltzeko eta dokumentazio horren edukia azaltzeko, errazago uler dadin. Saioen datak zehazten diren momentuan jakinaraziko zaizkie herritarrei.

Herritarren parte-hartzerako programak zenbait ekintza izango ditu ardatz; ekintza horiek osatzen dute, hain zuzen, Plan Orokorra egiteko esku-hartze prozesua.

Programa aurkezteko, ekintzak zazpi fasetan antolatu dira:

1. Aurretiko azterketak.
2. Aurrerapena.
3. Aurrerapenaren jendaurreko aurkezpena.
4. Hasierako onarpena.
5. Plan Orokorraren dokumentuaren jendaurreko aurkezpena.
6. Behin-behineko onarpena.
7. Behin betiko onarpena.

Aurkezpena egiteko bi bide daude:

- a) Jendaurreko aurkezpena.
- b) Web orrialdea: www.guenes.eus

1. FASEA, AURRETIKO AZTERKETAK

Herritarren parte-hartzerako programan zehaztukoaren arabera, aurretiko azterketak amaitutakoan, horietatik ateratako ondorioak ezagutzera emango dira, herritar guztiek horien berri izan dezaten.

Aurreikusitako ekintza da ateratako ondorioen txostena web orrialdean argitaratzea.